



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

2006eko MEMORIA



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

2006ko
memoria



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

ERAKUNDE BAZKIDEAK:



EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta
Portaera Zientzien Metodologia Sailak



Udako Euskal Unibertsitateko
Soziolinguistika Saila (UEU)



ELHUYAR Aholkularitza



AZTIKER Soziologia Ikergunea



ARTEZ Euskara Zerbitzua



EMUN Kooperatiba



EHU-UPVko Soziologia II Saila



Eusko Ikaskuntza



Tolosako Udala



Mondragon Unibertsitateko
Humanitate eta Hezkuntza
zientzietako Fakultatea



Topagunea.
Euskara Elkarten Federazioa.



Nafarroako Euskara Teknikarien
Lanbide Elkartea (NETeLE)



Urtxintxa eskola



Hernaniko Udala



Euskara Kultur Elkargoa



Euskaraz Kooperatiba
Elkartea (AEK)



EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria
eta Historia Saila

1	Sar hitza	7
2	Soziolinguistika Klusterra proiektuaren sorrera	9
3	Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa	10
3.1	Antolaketarako eredua: Klusterra	10
3.2	Soziolinguistika Klusterraren osaketa	10
3.3	Soziolinguistika Klusterraren antolaketa	11
4	Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak	12
4.1	Soziolinguistika Klusterraren misioa	12
4.2	Soziolinguistika Klusterraren bisioa	12
4.3	Soziolinguistika Klusterraren balioak	12
5	Soziolinguistika Klusterraren mapa estrategikoa	13
6	Garatutako proiektuak	14
6.1	Euskal Herriko Kale Erabileraren V. Neurketa	14
6.2	ARRUE proiektua	15
6.3	Gazteen hizkuntza jokaerak (Pasaia). Jardunaldia	15
6.4	ERALAN proiektua	16
6.5	ULIBARRI: kalitate lan taldea eta aholkularitza	17
6.6	Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak	18
6.7	Lezoko eta Pasaiaiko haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna eta erabilera	18
6.8	Gazteen erabilera. Perspektiba eta prospektiba	19
6.9	Bat Soziolinguistika Aldizkaria	19
6.10	Soziolinguistika Klusterraren webgunea	20
6.11	SOZIOLINGUISTIKAZ berri papera	21
6.12	The Case of Basque: Past, Present and Future liburua	21
6.13	Normalizazio Esperientzia Aurreratuen Kasuak bilketa proiektua	22
6.14	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan	22
6.15	Soziolinguistika alorreko Teknikari eta Eragileentzat Formazio Premiak	23
6.16	Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren azterketa	23
7	Lankidetzak	24
8	Eskainitako zerbitzuak	25
8.1	Herrietako Euskararen Kale Erabileraren Neurketak	25
9	Soziolinguistika arloko sarea eratzen	26
10	Hausnarketa estrategikoa	27
11	Urteko helburuak eta balantzea	31
11.1	Adierazleen balantzea	32

Soziolinguistika Klusterra erakunde gaztea dugu oraindik. 2004ean sortu genuen hainbat erakunderen babesarekin eta ordutik lehen urratsak eman ditu. Laburra izan arren, eginiko bidea aberatsa eta emankorra izan dela iruditzen zaigu. Dokumentu honetan, 2006. urtean zehar Soziolinguistika Klusterrak eman dituen urratsen, eginiko ibilbidearen eta garatu dituen proiektuen berri jasoko duzu.

Urtearen balantze bat egin beharko bagenu, alderdi onak nahiz alderdi txarrak azaltzeko kontzeptu nagusi bat erabiliko genuke: egonkortzea, hain zuzen.

Batetik, urte honetan, Soziolinguistika Klusterra erakunde bezala egonkortzen joan dela ikusi dezakegu. Bi teknikari berri kontratatu ditugu eta bulego berri eta handiago batera aldatu dugu gure egoitza. Horrekin batera, gure azpiegitura informatikoan ere hainbat inbertsio eta berrikuntza egin ditugu. Bazkideei dagokionez, bazkide sustatzaile berri bat egin dugu (Euskaraz Kooperatiba Elkarteak. AEK) eta lehendik zeuden bi bazkide erabiltzaile (Gipuzkoako Urtxintxa Eskola eta Tolosako Udala) bazkide sustatzaile izatera igaro dira. Honek guztiak, aurrera ilusioz begiratzeko arrazoiak ematen dizkigu.

Bestetik, ordea, oraindik orain, egonkortu gabeko erakundea da geurea. Egun ez dugu gure egitura babestera bideratutako laguntza orokorrik. Gure lanaren zati handi bat ikerketa, garapen eta berrikuntzaren arloan egiten dugula kontuan hartuta, hau muga handia da guretzat. Izan ere, gure egitasmoa aurrera ateratzea lortzen ditugun proiektuen baitan geratzen baita eta hauek beti finantziario muga estuekin garatu behar ditugu. Horrela, lehendik aipatu ditugun, ikerketa, garapen eta berrikuntzari ezin izaten diogu nahi beste dedikazio eskaini.

Iruditzen zaigu hizkuntza normalkuntzak honen inguruko gogoeta eta ikuspegi aldaketa bat eskatzen duela. Batean eta bestean jasotako iritzi komuna baita, ekinean, hizkuntza normalkuntzarako jardunean, aritu ondoren, hainbat muga, zailtasun eta ezinekin egiten dutela topo. Ekite horrekin batera, hizkuntza normalkuntzaren inguruko gogoeta orokorra, ekite hori ekarpen teoriko batekin osagarritzea eta laguntzea beharrezkoa dela. Gure jardunaren bidez, hain zuzen, auzi honi erantzun nahi izan diogu hasieratik.

Hizkuntzaren arloan askotan ulertaraztea kostatzen zaiguna, ekonomia arloko adibide batekin argi ikusi dezakegu. Izan ere, ekonomia arloan, lehiakortasuna irabazteko, enpresen jarduna hobetzeko eta, finean, lurralde bateko ekonomia bultzatzeko, ikerketan, garapenean eta berrikuntzan (I+G+B) inbertsioa egitea ezinbestekotzat jotzen baita. Esparru honetan eginiko inbertsioa garapenaren berme eta erreferente gisa ulertzen da. Horrela, inbertsio hauek, berehalako emaitzak eman ez arren, guztiek argi dute inbertsio hori egin, egin beharrezkoa dela, etorkizunik izan nahi bada. Adibidea hizkuntzaren arloan ekarrita ordea, benetan zaila suertatzen da I+G+Bren inguruko inbertsio politikarik ikustea. Guk aldiz, ekonomian bezala, hizkuntzaren auzian inbertsio hori egin, egin behar dela uste dugu. Bestela, inoiz baino jendarte aldakorragoan bizi garen honetan, benetan zaila suertatuko baitzaigu, heldu diren jendarte aldaketa guztien aurrean euskararen normalkuntza bideratzeko behar bezalako jarduerak "asmatu" eta garatzea. Denbora epaile.

Bukatzeko, lerro hauek baliatu nahi genituzke gure eskerrik beroenak helarazteko, gure proiektua aurrera ateratzen, elkarlanean jarduten eta, finean, euskararen normalkuntzarako bidean, soziolinguistika ezagutza garatzen beste urte batez lankide izan ditugun erakunde eta norbanako guztiei. Eta nola ez, gure proiektuaren oinarri sendoena osatzen duten Klusterraren bazkide guztiei. Bide batez, jardun horretan, aurrerantzean ere, Soziolinguistika Klusterraren ateak parez-pare zabalik izango dituzuela adierazi nahi dizuegu.



Soziolinguistika kluster baten sorrera proiektu hau, **2000ko azaroan "Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen" SIMPOSIO**Maren erakunde antolatzaileek eginiko azterketaren inguruan egituratzen da. Bertan, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketa eta zabalpen gune baten gabezia eta beharra jasotzen da, Euskal Herrian hizkuntza normalizazio prozesuan inplikaturik dauden erakundeei eta taldeei –pribatu, publiko zein gizarte mailako– arlo zientifiko-aplikatutik laguntza eskainiko diena, beren jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta, ondorioz, beren emaitzak hobetzeko.

Geroztik, Soziolinguistika Klusterre sortzeko ahaleaginean **bat egin dute hainbat eragilek**. Horien artean hasieratik daudenak NUP-UPNAko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, UPV-EHUko Soziologia I eta II Sailak, Mondragon Unibertsitateko Humanitateak Fakultatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea eta SEI Elkartea. Geroa proiektuarekin bat egin dute Elhuyar Aholkularitzak, Emun Kooperatibak, UPV-EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak eta Eusko Ikaskuntzak.

Azken urteetan Klusterre sortzearen aldeko bide horretan gaiaren inguruko eztabaidan sakontzen eta adostasunak bilatzen lan egin da: arloko eragileekin aurrez-aurreko bilerak egin dira, eztabaidarako foroak antolatu eta lankidetzarako hitzarmenak sinatu (2001eko maiatzean «Soziolinguistika Institutua Klusterre»ren aldeko Lankidetzeta-Protokoloa, 2001eko azaroan «*SIKeraiki*» Lan-Jardunaldia...).

Azkenik, 2004ko martxoaren 30ean Soziolinguistika Klusterrearen eraketa batzarra egin zen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean.

Klusterraren osaketa eta antolaketa

3

3. 1

Antolaketarako eredua: Klusterra

Soziolinguistika Klusterraren eraketarako, izenak berak adierazten duenez, **klusterraren eredua** hobetsi da. Izaera guztiz ezberdina duten entitateak organizatiboki elkarren artean lotzeko baliagarria izan daitekeelako eta, gainera, bada-goelako lehendik Euskal Herrian beste kluster batzuen eredua –hala nola Ezagutzaren Klusterra– oso lagungarri gerta dakigukeena.

Klusterra taldekatze bat da, esparru jakin batean elkarren artean nola-baiteko lotura, harremana edo interes partekatua duten entitateen, enpresen, eta instituzioen arteko taldekatzea. Normalki enpresak iza-

ten dira klusterraren muina eta haiekin batera administrazioak, unibertsitateak, formazio zentroak, elkarte profesionalak, edota zerbitzu bereziak.

Kluster baten **funtzioa da kooperazio egiturak antolatuz ezagutzaren hedapenari bide egitea** eta berrikuntza sustatzea, horrek guztiak dagokion sektorearen garapenari positiboki eragin diezaion. Klusterrak sinergiak sortzen dituzte. Horrela, erakunde desberdinek euren kabuz aurrera atera ezingo lituzketen proiektuak bideragarri egin litezke.

3. 2

Soziolinguistika Klusterraren osaketa

Lehen aipatu bezala, hainbat erakundek bat egin zuten Soziolinguistika Klusterra sortzeko beharrarekin. Batzuk hasieratik izan genituen erakundea sortzeko bultzatzaile eta beste batzuk berriz, gure erakun-

deak egin zezakeen lana eta lan horretatik eurek lor zitzaizketen etekinak aztertuta egin ziren bazkide. Egun, 16 erakunde bazkide eta 114 norbanako ditugu. Jarraian duzue Soziolinguistika bazkide erakundeen zerrenda:

Bazkide Sustatzaileak

- > Emun Kooperatiba Elkartea
- > Elhuyar Zubize SLU
- > HUHEZI Koop.E
- > Topagunea. Euskara Elkarleen Federazioa
- > Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK)
- > Eusko Ikaskuntza
- > Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
- > Tolosako Udala. Euskara Zerbitzua

Bazkide Erabiltzaileak

- > AZTIKER Ikergunea
- > ARTEZ Euskara Zerbitzua
- > Hernaniko Udala. Euskara Zerbitzua
- > EHU-UPVko Soziologia II saila
- > EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak
- > Euskara Kultur Elkargoa
- > EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila
- > Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)
- > Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea (NETeLE)
- > + 114 norbanako

3. 3

Soziolinguistika
Klusterren
antolaketa

Soziolinguistika Klusterrak hiru organo nagusi ditu. Batetik, Batzar Orokorra dago. Hemen aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzeko dira. Honekin batera, hiru urtean behin Batzar Orokorreko kideak (bazkide guztiak) Soziolinguistika Klusterren egitasmo estrategikoaren osaketan parte hartzeko aukera dute, horretarako berariaz antolatutako bileren bidez.


Bestetik, Zuzendaritza Batzordea dugu. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa planean ezarritako helburuak betetzeko uneen-unean beharrezko erabakiak hartu eta beharrezko egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia. Ondorengoek osatzen dute:

- Imanol Larrea (Emun Kooperatiba). Lehendakaria
- Xabier Azkue (Elhuyar Aholkularitza)¹
- Iker Salaberria. Idazkaria
- J. Inazio Marko (EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila)
- Josune Zabala (Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea)
- Iñaki Martinez de Luna (Eusko Ikaskuntza)

Bukatzeko, proiektu eta jardura desberdinen garapenez arduratzen den bulego teknikoa dugu. Hasieran aipatu bezala, lan talde honetan berrikuntzak egon dira eta kide berriak hasi dira lanean. 2006an ondorengo teknikariak izan ginen Soziolinguistika Klusterrean lanean:

- Pablo Suberbiola
- Olatz Altuna
- Larraitx Garmendia
- Lionel Joly
- Oihana Lujanbio
- Iker Salaberria. Kudeatzailea

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN ORGANIGRAMA



¹ Urtarriletik maiatzera bera izan zen lehendakaria eta ondoren eszedentzia hartuta Imanol Larreak hartu zuen bere lekua

Klustreraren
misioa, bisioa
eta balioak

4

4 . 1

Soziolinguistika Klustreraren misioa

Soziolinguistika Klustreraren misioa euskararen berreskurapenerako eta normalizaziorako soziolinguistika ezagutza garatzea da. Horretarako, azpiegitura, baliabide, eta baldintza egokiak sortzea, esparru zientifikoaren eta aplikatuaren arteko zubiak eraikitzea, eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatzea.

4 . 2

Soziolinguistika Klustreraren bisioa

Lauzpabost urteko epean Soziolinguistika Klusterra euskararen soziolinguistikan erreferente nagusi izango den erakundea izango da; bertako eta kanpoko eragileekin harremanak izango dituen eta proiektu kooperatiboen bidez eta behar besteko autonomiaz bere bazkideen interesei zein euskararen berreskurapen prozesuaren ezagutza beharrei erantzungo diena.

4 . 3

Soziolinguistika Klustreraren balioak

1. Euskararen hizkuntza komunitatea bere osotasunean aintzat harturik jardutea.
2. Lehialkartasuna: interes partikularretatik abiatuz proiektu kolektiboak garatzea.
3. Bazkideen jarduera errespetatzea eta indartzea.
4. Oro har, konkurrentzia saihestea eta osagarritasunak bilatzea.
5. Irudi zein komunikazio maila altua eta landua izatea.
6. Ekimen aplikatua arreta bereziz lantzea.
7. Kideek etekinak jasoko dituzte, eta neurgarriak izango dira.
8. Klusterrak erantzukizun sozialez jokatu du, gizarte mailan bere emaitzak zabalduz..

Klusteraren mapa estrategikoa

5

Soziolinguistika Klusteraren Egitasmo Estrategikoa diseinatzeko "Balanced Scorecard" edo Gida Panel Integralaren eredua jarraitu dugu, beti ere gurea bezalako erakunde baten ezaugarrietara egokituz.

Eredu horren arabera, abiapuntua aurreko atalean ikusi dugun ikuspegi estrategikoa definitzea izan da. Hori egin ostean, helburu estrategikoak definituko dira lau mailatan banatuta:

Baliabideak:

Baliabide pertsonal eta materialen atalari dagokio.

Prozesuak:

Gure lanaren antolaketarako abian jartzen ditugun sistemei eta kudeaketa ereduari dagokio.


Garapena:

Gure misio eta bisioa lortzeko zer egiten dugun.

Erabiltzaileak eta komunitatea:

Gure misio eta bisioa lortzeko zer eskaini behar diogun erabiltzaile eta komunitateari.

MAPA ESTRATEGIKOA:



6. 1

Euskal Herriko Kale Erabileraren V. Neurketa

Badira hainbat datu (erroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegietako matrikulazio datuak...) hizkuntza egoera ezagutze-ko baliagarri direnak. Hizkuntza egoe-rari buruz ematen diren datu gehie-nak, ordea, hiztunek inkestetan aitorturiko datuak dira. Hau horrela da, besteak beste, erabilera modu errealean neurtzea ez delako erraza izaten. Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketak kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak eskaintzen ditu. Hiru bertute nagusi ditu, beraz, ikerketa honek. Lehena, zuzenean behatutako datua jasotzen duela, inori ezer galdetu gabe, kalean entzuten dena, alegia. Bigarrena, hizkuntza normal-kuntzaren ikuspegitik hain garrantzizkoa den erabilerari buruzko datua jasotzen duela. Hirugarrena, berriz, kalean eginiko hizkuntza erabileraren datua jasotzen duela. Alegia, erabilera esparru informal batean, hiztunari hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko zuzenean eragiten ez dion eremu batean jasotzen direla datuak, hain zuzen ere.

Hortaz, kale erabileraren datua funtsezkoa da hizkuntza errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Gurean ere, erabilera bera zer-nolakoa den ezagutzea ezinbestekoa da, baita berau sustatzeko eginiko ahaleginek zenbateko eragina izan duten jakitea ere. Honela, kale erabileraren neurketak maiztasun batekin eginez, urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal dugu eta, modu horretan, izaten diren hizkuntza aldaketak gertutik jarraitu ahal izango ditugu.

Aurtengoa V. Neurketa dugu. Horrela, aurtengo emaitzak aurrekoekin konparatu eta eboluzio edo joera desberdinak aztertu ahal izango ditugu. 2006ko urria eta azaroan egin genuen landa lana eta 2007an zehar datuak prozesatu, emaitzak atera eta hauen inguruko gogoeta eta irakurketak bideratzea izango da gure egiteko nagusia.

Koordinatzailea: Olatz Altuna
olatz@soziolinguistika.org



6. 2

ARRUE
proiektua

Euskararen kasuan, eta beste hamaika hizkuntzarenean ere, irakaskuntza bidez ikasleek hizkuntza bakoitzean nolako gaitasun maila lortzen duten neurtzea izan da ikerketa askoren helburua. Baina, gaitasun maila bat edo beste izan, zein hizkuntza erabiltzen dute ikastetxean? Zein neurritan? Zein egoeretan edo zertarako? Arrue programak galdera hauen inguruko ikerketa-ildo bat zabaltu du, ikasleen eskola-giroko hizkuntzen erabileraren ingurukoa, alegia. Zenbat erabiltzen duten, eta bereziki erabiler horretan zein aldagaik (eta ahal den neurrian, nola?) eragiten duten jakiten eta deskribatzen joatea da programa honen xede nagusia. Ulibarri programaren testuinguruan 03-04 ikasturtean sortutako proiektua da hau, Hezkuntza Sailarekin hitzartutakoa.

04-05 ikasturtean barnetegietan datu hauek aztertzeko berariaz prestatuko galdetegi bidez egin zen datu-bilketak, eta 05-06 ikasturtean, LH 6. mailako ikasleen artean egin da, EAEko 50 bat ikastetxe. Proiektuko zuzendari lanetan berriz, Eusko Ikaskuntzako Iñaki Martínez de Luna aritu da. 2006 urte honetako lan nagusia, datuak prozesatzeaz gain, berauen azterketa estatistikorako tresneria tekniko eta kontzeptuala garatzen joatea izan da.

Datorren urteari begira, batetik, aurrekoan jasotako datuak osatu nahi dira zenbait ikastetxetan azterketa kualitatiboagoak eginez. Eta bestetik, ikerketaren helburuen eta orain arteko emaitza nagusien berri emateko argitalpen bat prestatzea aurreikusten da.

Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
pablo@soziolinguiстика.org

6. 3

Gazteen
hizkuntza
jokaerak
(Pasaia).
Jardunaldia

Soziolinguiстикaren inguruko datu bilketa egiten denean, askotan, emaitza gisa eskuratutako datuekin ez dugu jakiten zer egin. Proiektu honetan, datu hauek gazteen erabilera eta motibaziorako pizgarri gisa nola erabil daitezkeen aztertu dugu. Helburua ez zen txosten bat egitea, jarduera eta egoera konkretuetan lagungarri, motibagarri, eraginkor... izango zen material ezberdinak egitea baizik.

Proiektu hau Pasaiaiko Udalaren eskariz eta Gipuzkoako Urtxintxa eskolarekin elkarlanean garatu zen. Eginiko lanaren berri emateko eta gaiaren inguruan eztabaidarako aukera zabaltzeko 2006ko otsailaren 26an jardunaldia antolatu genuen. Bertan, proiektu zuzendari Jaime Altunak egindako lanaren gora beherak azaltzearekin batera, Publis NCM enpresako Iñigo Fernandezek hizkuntzaren erabilera bultzatzeko komunikazio estrategiek izan dezaketen eraginaz hitz egin zigen.

Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
pablo@soziolinguiстика.org



6 . 4

ERALAN
proiektua

Zergatik da lan mundua, oraindik hain esparru erdalduna? Zer egin liteke lan munduko normalizazio ahaleginak hobetzeko? Galdere hauei erantzun errazik ematea ez genuen espero, horregatik abiatu genuen oinarri gisa ikerketa-ekintza metodoa darabilen proiektu hau. Horrela, ikerketa prozesu bat sistematizatu nahi du lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaiak eta portaerak identifikatu eta, horiek abiapuntu, lan alorreko normalizazio egitasmoen hobekuntzarako eskuartze-proposamen positibokiak formulatzera iristeko.

Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin garatutako proiektua da. Bestalde, Soziolinguistika Klusterreko bazkide diren Emun Kooperatiba Elkarteak eta Elhuyar Aholkularitzak ere proiektu honetan parte hartzen dute, Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko J. Inazio Markoren zuzendaritzapean.

Proiektua urte anitzetan garatzekoa da. 2006an garatutako lan nagusia, lan esparruko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagai nagusiak identifikatzea izan da. Lan hau osatze aldera, urtean zehar bi lan topaketa ere antolatu dira. Bertan, proiektuaren inguruko azalpenez gain, jakintza esparru desberdinetako erakundeen eraldaketaren inguruko teoriak, Lasarte-Oriako normalkuntza planaren adibidea, narratiba taldeen aukerak eta norbere hizkuntza erabiltzeko asertibitatearen inguruko teoria eta teknikak berri izan genuen, Igor Calzadaren (MIKeko ikertzailea), Aitor Aritzetairen (UPV-EHU irakaslea), Aitor Unanueren (Lasarte-Oriako euskara teknikaria), Gemma Sanginésen eta Ferran Suayren (psikologoak, Societat Valenciana de Psicologia) eskutik.

Horrela, 2007. urtean, hizkuntzaren erabileran eragiten duten aldagai hauetan positiboki eragiteko 2006ean diseinatutako ekimenak abiatuko dira lagin gisa hartu diren erakundeetan.

6 . 5

ULIBARRI:
kalitate lan
taldea eta
aholkularitza

Ikastetxe mailako hizkuntza normal-kuntza ahalbideratzeko plan osatu bat abian jartzeko beharra ikusita sortu zen Ulibarri programa. Ahalegin honetan ari dira Ulibarri programan bildutako ikastetxe guztiak euren Hizkuntza Normalkuntza proiektuen bidez.

Ulibarri egitasmoaren arduradunek programaren inplementazioarekin, egitasmoarekiko inplikazioarekin, egitasmoaren instituzionalizazioarekin, komunikazioarekin, kalitate sistemen erabilerarekin eta, oro har, programaren funtzionamendu orokorrarekin zituzten hainbat zalantzei erantzun asmoz, proiektu berri bat jarri zen abian.

Programak egun dituen arazo nagusiak identifikatu, afinitate mapak eta kausa-efektu loturak egin eta lehen-tasunez zein arazori heldu behar genion zehaztu genuen. Horrela, behin gure arreta guinea, Ulibarri programako prozesuetan jarrita, Ulibarriko prozesuen mapa osatu eta zenbait prozesu zehatz aztertu eta prozedimentatzeari ekin genion.

Aurtengorako, prozesuen mapako gainerako prozesuen definizioan sakontzea aurreikusi dugu.

Koordinatzailea: Iker Salaberria
iker@soziolinguiстика.org



6 . 6

Buruntzaldeko
Familia-
programa:
metodologia,
hitzaldiak eta
materialak

A rgi dago hizkuntzaren transmisioa bermatzeko etxeko hizkuntzak garrantzia berezia duela. Eragin al daiteke, ordea, horrelako esparru batean? Eta hala balitz, nola? Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuek 2005-06 ikasturtean "Etxeko hizkuntzan eragiteko egitasmoa" prestatu zuten. Egitasmoaren helburua "familietan eragitea da". Kasu batzuetan euskara bikote- eta familia-hizkuntza bihurtadin eguneroko erabileran eta, beste batzuetan, ahalik eta presentziarik gehien izatea lortzea. Buruntzaldeko ekimenari erantzunez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proiektuari babesa eskaini dio eta bere egin du.

Soziolinguistika Klusterra, HABE, HPS eta Buruntzaldeko teknikariekin batera ari da proiektuan, beronen aplikazioan atal batzuen ardura harturik.

Soziolinguistika Klusterrak 2006an zehar gurasoei eta ikastetxeei zein informazio eta nola eman hausnartu eta prestatu duen lantaldean parte hartu du. Horrekin batera, Kike Amonarrizekin (Soziolinguista eta umoregilea) gurasoei hitzaldiak eskaini genizkien, osatutako materiala banatzeko eta honi ematen zioten erabileraren jarraipena egin genuen proiektu honetan parte hartu zuten sei ikastetxeetan.



Datorren urteari begira berriz, Buruntzaldeko gainerako ikastetxeak proiektura ekartzea eta gurasoei egin beharreko lanari ikastetxeen bidez jarraipena egitea izango da gure egiteko nagusia.

Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
pablo@soziolinguistika.org

6 . 7

Lezoko eta
Pasaiaiko
haur eta
gazteen
hizkuntza
gaitasuna
eta erabilera

L ezoko eta Pasaiaiko Udalek herrian euskararen erabilera zenbatekoa eta nolakoa den neurtu eta ikertu izan dute azken 10-15 urteotan. 2005-2006 urteetan zehar ikerketa berri bat egiteko interesa adierazi dute: haur eta gazteen euskarazko gaitasunean sumatzen diren gabeziak aztertu nahi dituzte eta, kale erabileran behatutako erabilera mailak kontuan hartuta, egoeraren irakurketa kualifikatu bat egin.

Soziolinguistika Klusterrak eskaera hau jasota, ezagutza metodologikoan sakontzeko baliatu nahi izan du.

Horrela, Klusterrak berak landu izan duen eta, oraindik orain, gutxitan erabilia izan den Gazteen Euskararen Erabileraren Neurketa eta Lore Erriondok eta Xabier Iasik garatutako Elebiduntasun Testak erabili ditu datu bilketa osatzeko.

2006an datuak jaso ondoren, 2007an zehar aditu talde baten laguntzarekin emaitzen interpretazioan sakonduko dugu.

Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org

6 . 8

Gazteen erabilera. Perspektiba eta prospektiba



Gazteen esparrua arreta gune bihurtzen ari da azken urteetan. Eskola bidez soilik euskalduntutako lehen belaunaldiak ezagutzen ari gara eta aldi berean, eskola bidez soilik euskalduntzeak dituen mugak agerian geratzen ari dira. Baina zein ekimen jarri da martxan gazteen euskararen erabilera areagotzeko? Zein ekimenek izan du arrakasta eta zeinek ez? Zein ikerketa eta ekarpen teoriko hartu dezakegu oinarri gisa? Galdera ugari eta guztiei erantzuteko bilaketa lan sakona egin behar.

Proiektu honen bidez, hain zuzen, horixe da egin asmo duguna: bilatu. Bilatu, batetik, azken hamarkadetan gazteen erabilerari lotuta egin diren ikerketak, argitalpenak, ekimen praktikoak... Horiek modu sistematikoan biltzeko oinarria osatuz. Bestetik, bilatu, bildutako materiala oinarri hartuta, aurrera

begira zein bideetatik jo behar genukeen, zein, ikerketa den beharrezko, zein gogoeta, zein ekimen aplikatu... Horretarako, esparru hau hain ongi ezagutzen duten, Gipuzkoako Urtxintxa Eskolarekin eta Topagunearekin aritu gara elkarlanean. 2006an materiala bildu eta berau sailkatzeko eta antolatzeko datu basea osatu dugu.

2007ko erronka izango dugu jasotako materiala ustiatu eta aurrera begira baliagarriak izan daitezkeen ikasgaiak eta ondorioak ateratzea. Horretarako, noski, ez gara bakarrik ariko. Gaia ongi ezagutzen duten aditu eta arituekin partekatutako gogoeta egin eta ateratako emaitzak jardunaldi batean aztertzeko asmoa dugu.

Koordinatzailea: Iker Salaberria
iker@soziolinguistika.org

6 . 9

Bat Soziolinguistika Aldizkaria



Txillardegik esana da euskararen berreskurapena lortuko badugu ezinbestekoa dela: batetik, hizkuntzaren alorreko fenomenoak ahalik eta ongien ezagutzea; eta bestetik, hizkuntza pizkundean herria bera interesatzea. Bi ideia horiei erantzuteko asmoa duen tresna da Bat Soziolinguistika Aldizkaria.

Horrela, Soziolinguistika Klusterrak BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratu diren artikulu guztiak edonoren eskura jartzen ditu, bildutako ezagutzaren zabalpena egiteko. Horretarako, bere webgunean (www.soziolinguistika.org) eskaintzen ditu eta hauek ahalik eta modurik eroso edota errazenean aurkitu ahal izateko, bilatzailer bat sortu eta garatu du.

Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org

Jarraian dituzue 2006an zehar argitaratu diren zenbakiak:

58. zenbakia. Martxoa: Euskararen egoera Nafarroa Garaian.

59. zenbakia. Ekaina: Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian

60. zenbakia. Iraila: Unibertsitate aurreko hizkuntza ereduen balorazioa eta proposamenak

61. zenbaki. Abendua: Euskararen mailako soziolinguistikaren irakaskuntza eta ikerkuntza-lerroak

Azken 5 urteetan aldizkariko zuzendari lanetan aritu den Maria Jose Azurmen-di bere kargua uztera doa, argitalpen batzordean jarraitu arren. Orain arteko aldizkariko koordinatzaile izandako Larraitx Garmendiaren lekua berriz, Lionel Jolyk beteko du datorren urtetik aurrera. Hortaz, lerro hauetatik, eginko lana eskertu nahiko genieke biei. Horrek noski, datorren urtean argitalpen batzordea osatzeko eta indartzeko erronka jartzen digu mahai gainean.

6.10

Soziolinguistika
Klusteraren
webgunea

Soziolinguistika Klusteraren webgunea, egiten dugun lanaren erakusleaho nagusia dugu. Horrela, Bat Soziolinguistika aldizkariarekin batera, gure proiektuen bidez garatutako ezagutza gure bazkideen eta, orokorrean, jendartearen esku jartzeko tresna nagusia dugu.

Bestetik, Soziolinguistika Klusterreko kideei eta proiektuetan parte hartzen ari diren aditu eta bazkideei begira, proiektu bakoitzaren bilakaera kontsultatu ahal izateko, proiektuetan sortutako informazioa trukatu ahal izateko, bileren aktak eta bestelakoak webgunetik eskuratzeko... aukera eskainiz, gure proiektuak sarearen abantaila eta aukerak aprobetxatuz garatu ahal izateko tresna ere bada gure webgunea.

Honi guztiari begira, 2006an emaniko urrats nagusiak ondorengoak izan dira:

- Batean eta bestean argitaratutako soziolinguistikazko materiala bateratu eta igotzea. Horrela, egun 40 dokumentu inguru bildu ditugu atal honetan: <http://www.soziolinguistika.org/eu/fitxategiak/152>
- Webgunearen itzulpena ingelesera. Lehen esan dugun bezala, gure webgunea, gure lanaren erakusleaho nagusia dugu. Nazioartean ere hala da, noski, eta horregatik, leiho hau beste herrialdeetara zabalik egon dadin, webgunea beste hizkuntzetara itzultzeari ekin diogu. Aurtengoan ingeleseko itzulpena osatu dugu.
- Azkenik, proiektuz proiektu bildutako erreferentziak, antzeko lanak egin nahi dituen edonorentzat interesgarriak izan daitezkeela uste dugu. Horregatik, Proiektuetako Erreferentzien Bilgunea osatzeari ekin diogu. Atal honetan, esan bezala, gure proiektuak garatzeko baliagarriak suertatu zaizkigun erreferentzia mota desberdinen (artikuluak, liburuak, tesiak...) erreferentziak bilduko ditugu.

Datorren urteko urrats nagusiak lehendik abiatutako bidea jarraituz, webgunearen gaztelerazko itzulpena eta Proiektuetako Erreferentzien Bilgunea osatu eta erreferentziekin elikatzen hastea izango da.



Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org

6.11

SOZIOLINGUISTIKAZ
berri papera

Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org

SOZIOLINGUISTIKA BERRIPAPER ELEKTRONIKOA euskararen normalizazioarekin loturiko edota soziolinguistika arloko gaien inguruko informazioa zabaltzeko sorturiko orri elektronikoa da. Soziolinguistika Klusterrak atondu eta doan zabaldu du orain artean, web bidez eta posta elektroniko mezuz bidez, arlo honetan interesa duten guztientzat.

Soziolinguistikaz berripapera euskarri elektronikoan soilik banatzen da, eta formatu laburrean, kasu bakoitzean informazio zabalagoa eskuratzeko dago-kion helbide elektronikoaren lotura bertan jarritz.

Soziolinguistikaz berripapera bi hilabete behingo maiztasunez 800 bat helbidetara zabaltzen da. Tartean dira udaletako euskara zerbitzuak, euskara elkar-teak, erakunde ezberdinetako euskara teknikariak, irakaskuntza arloan normalkuntza plangintzetan dihardutenak, unibertsitateko irakasleak, euskaltegiak...

Aurrera begira SL Klusterrak duen erronketako bat, Soziolinguistikaz berripapera bera sendotu eta, ahal den neurrian, maiztasun gehiagorekin bidaltzeko aukera aztertzea izango da.

6.12

The Case of
Basque: Past,
Present and
Future liburua

Joshua A. Fishman editore duen IJSL aldizkariaren 174 zenbakirako hainbat artikulu prestatu zituzten Euskal Herriko aditu desberdinek. Aldizkarian ordea, guztientzako lekuri ez zegoenez, zenbait lan argitaratu gabe geratu ziren. Soziolinguistika Klusterrak artikulu horiek argitaratu eta nazioartean zabaltzeko proiektua osatu zuen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bat egin zuten egitasmo honekin. 2005ean zehar liburuaren osatze eta itxuratze lanetan aritu ginen, Klusterreko bazkide diren Eusko Ikaskuntzako Iñaki Martinez de Luna eta Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko Mari Jose Azurmendiren gidaritzapean. Maiatzean egin genuen liburuaren aurkezpen publikoa eta, zuzendariekin batera, Hizkuntza Politikako Sailburuordeak, Patxi Baztarrikak, parte hartu zuen. Urte bukaera bitartean atzerriko unibertsitate eta liburutegi nagusienetan zabalkundea egin ari gara.



Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org

6.13

Normalizazio Esperientzia Aurreratuen Kasuak bilketa proiektua

Ongi eginikotik ikasi egin behar dela diote. Ideia hori du proiektu honek oinarri. Hizkuntza normalizazio prozesuan emaitza onak lortu dituzten erakundeek kasuak aztertu nahi dira. Horrela, euren emaitza onen jatorria hobeki ezagutu eta esperientzia hauetatik ikasi ahal izateko.

Koordinatzailea: Oihana Lujanbio
oihana@soziolinguistika.org

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Karmele Perezen gidaritzapean eta lehendik ere kasuen azterketak egin izan dituen Ezagutzaren Clusterrarekin elkarlanean hasi gara proiektua garatzen. 2006an proiektuaren oinarrizko diseinua, planifikazioa eta kasuak aztertzeko metodologia landu ditugu. 2007an, jarritako irizpideen arabera, zein kasu aztertu eta hauen inguruko azterketa lana burutu beharko ditugu, beraz.

6.14

Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan

Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org

UEUko ikastaroek aukera paregabea eskaintzen dute, urtean zeharreko jardun itogarritik distantzia hartu eta soziolinguistikaren inguruko gogoetak eta elkarriketak partekatzeko. Aurtengo ikastaroetarako euskararen erabilerak dituen erronketan zentratu nahi izan dugu gure gogoeta gaia. Izan ere, sarritan esan ohi den bezala, euskararen erabilera da kezka nagusietako bat euskararen normalizazio prozesuan, erabilera-mota eta neurria direlako normalizazio mailaren adierazpen nagusia. Euskararen erabilerak erronka berriak izango ditu datozen urteetan. Hori horrela izanik, erabileraren inguruan egin diren hainbat egitasmo aurkeztea eta aurrera begira gogoeta egitea izango dira ikastaro honetako helburu nagusiak.

Ikastaroa, esan bezala, UEUko udako ikastaroen baitan, Uztailak 18tik 20ra Iruñeko Larraona ikastetxean eskaini zen. Izenburua, **“Erronka berriak euskararen erabileran”** izan zen eta landutako saioak hiru gai nagusiren inguruan ardatzu ziren:

- **Erabilerari buruzko ikerketa:** alderdi teorikoa, erabilera eta prozesu psikosozialak, jarrerak eta erabilera, erabilera neurtzeko metodologia...
- **Lana eta erabilera.** Euskararen erabilera bultzatzeko planak lan tokietan eta merkataritzan...
- **Gazteen euskararen erabilera.** Diagnostika, euskararen erabilera bultzatzeko planak gazteen artean...
- **Erabileraren plangintza administrazioan, udaletan e.a.** Euskararen erabilera administrazioan eta udaletxeetan, administrazioek eta udalek euskararen erabilera bultzatzeko dituzten planak...

Ikastaroetan unibertsitateko irakasleenaz gain, esperientzia praktikoak garatzen ari diren erakundeek kideen eta teknikarien hitzaldiak eskaini ziren.

40 bat ikaslek eta 14 irakaslek parte hartu zuten eta eginiko balorazioa ona izan zen.



6.15

Soziolinguistika alorreko Teknikari eta Eragileentzat Formazio Premiak

Gaur egun asko dira euskararen berreskurapenari lotuta lanean dabiltzan teknikariak. Administrazio, ikastetxe, enpresa eta elkarte desberdinak kontutan hartuta, luze geratzeko arriskurik gabe, esan genezake, 600dik gora teknikari izan badirela lan jardun horri lotuak. Aldiz, halako jende multzoa mugitzen duen arlo batean, oraindik orain, formazio eskaintza oso desegituratua dago. Unibertsitate mailako ikasketetan soziolinguistika lerro egituraturik ez dugu eta horrela, formazio eta esperientzia anitzeko teknikariak topatzen ditugu hizkuntza normalkuntza lanean. Formazio behar nabarmenak sortzen dituelarik egoera honek.

Proiektu honetan, egun dagoen formazio eskaintza aztertu nahi dugu lehenik, hori oinarri hartuta, etorkizunean garatu beharreko urratsak zeintzuk izan beharko liratekeen zehazte aldera. 2006an Unibertsitate mailako soziolinguistikazko formazioaren berri jaso genuen. Horrela, bildutako informazioa Bat Soziolinguistika aldizkariko 61. zenbakian eman genuen argitara.

Datorren urtean, jasotako informazioa ustiatu eta aurrera begira landu beharreko bidearen inguruko gogoetari helduko diogu.

Koordinatzailea: Iker Salaberria
iker@soziolinguistika.org

6.16

Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren azterketa

Askotan, egoera soziolinguistikoari buruzko datuak eskuratzea bezain zaila izaten da, behin hauek eskuratuta zer nola irakurri, interpretatu... jakitea. Bortzirietako eskualdean, azken urteetan eginiko azterketa eta ikerketa desberdinetan bildutako datu ugari zituzten esku artean. Datu hauen inguruan Soziolinguistika Klusterrekotik zein irakurketa egiten genuen ezagutu nahi zuten. Hortaz, Soziolinguistika Klusterreko teknikariak, Lionel Jolyk, iturri teoriko desberdinak oinarri hartuta, Bortzirietako datuetatik, hainbat ondorio, irizpi-

de eta jarraibide osatu zituen. Finean, datuak izate hutsetik, datuak modu erabilgarrian izateko gogoeta zen egin genuena: datuen irakurketa, interpretazioa eta egoera soziolinguistikoaren azterketa, hain zuzen.

Datorren urteari begira eginiko txostena argitaratzeko aukera aztertzen ari gara Bortzirietako Mankomunitatearekin batera.

Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org

Soziolinguistika hiztegiak: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Sailburuordearen eskariz, UZEI erakundea soziolinguistika hiztegia osatzen ari da. Lan horretarako Soziolinguistika Klusterrari lankidetzak eskaintza luzatu zion. Klusterreko Pablo Suberbiola eta Lionel Joly teknikariek euren ekarpenak bideratu dituzten lan honetan.

ELEBI. Ikastereduen inguruko gogoeta:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskararen irakaskuntzari begira ereduaren sistema egokitzeko osatu beharreko proposamenari begira, Soziolinguistika Klusterrari ikuspegi soziolinguistikoa aztertuko zuen lan taldean parte hartzeko eskaera egin zion. Soziolinguistika Klusterreko Lionel Joly teknikariak parte hartu zuen, talde honetan.

Gaztea izan eta euskara ahoan. Mahai inguruak:

Udako Euskal Unibertsitateak Leioan antolatutako jardunaldi honetan, euskararen erabilera gazteen artean sustatzeko egon daitezkeen metodologia eta tresna desberdinak aztertu nahi ziren. Jardunaldiko lehen egunean *"Hizkuntza jarrerak eta erabilera gazteen artean"* mahai ingurua antolatu zen. Mahai inguru honen moderatzailea Soziolinguistika Klusterreko Pablo Suberbiola izan zen.

Bizitasun soziolinguistikoa eta sormen kulturala Frantziako hizkuntzetan XX. eta XXI. mendeetan: erabilpenak eta irudikapenak.

Mintegia (Montpellier. Frantzia): 2006ko abenduaren 8an eta 9an Frantziako Montpellierreko unibertsitatean Frantziako hizkuntzei buruzko mintegiak antolatu ziren. Mintegietan jorratuko zen gaia *"Bizitasun soziolinguistikoa eta sormen kulturala Frantziako hizkuntzetan XX. eta XXI. mendeetan: erabilpenak eta irudikapenak"* izan zen. Bertan, Soziolinguistika Klusterraren teknikari Lionel Jolyk hitzaldia eman zuen euskal kultura eta euskara lotuz.

Hizkuntza ekintzak eta identitatearen ondorioak (Paul Valéry Unibertsitatea): 2006ko ekainaren 1tik 2ra antolatu zen Frantziako Paul Valéry Unibertsitatean hizkuntzalari-tzen nazioarteko mintegia. Bertan hizkuntza eta identitatearen arteko loturak aztertu ziren: *"Faits de langue et effets d'identité"* (hizkuntza ekintzak eta identitate ondorioak). Soziolinguistika Klusterreko Lionel Joly teknikaria bertan izan zen eta ondorengo hitzaldia eskaini zuen: *"Hizkuntza ekintzak eta identitate ondorioak Espainiako testiguru gatazkatsuan"*.

"Ikasle guztiak euskaldundu: nola?". Jardunaldia:

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak *Ikasle guztiak euskaldundu: Nola?* jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 23 eta 24rako Donostian. Jardunaldietan hezkuntza arloan lan egiten duten hainbat adituk parte hartu zuen. Gaur egungo hezkuntza sistemak zergatik ez duen euskalduntzen eta ikasleak nola euskaldundu litezkeen aztertu zen. Gaia ikuspegi soziolinguistikoa oinarri hartuta aztertu zuen mahai inguruan, Soziolinguistika Klusterreko Lionel Jolyk hartu zuen parte.

Formazio saioa Topaguneko teknikarientzat:

Gure bazkide den Topagunea Euskara Elkarrekin Federazioak urtero barne prestakuntza saio bat egin ohi du bere teknikariei bideratua. Horrela, Soziolinguistika Klusterreko teknikariak, Pablo Suberbiolak, "Euskararen erabileran nondik eragin? Zenbait gogoeta" hitzaldian oinarritutako formazio saioa eskaini zien.

8. 1

Herrietako Euskararen Kale Erabileraren Neurketak



HERRIETAKO ERABILERAREN NEURKETAK	
Herria	Neurketa
EHAKUMEA	EHAKUMEA
GIZONA	GIZONA
EHAKUMEA	EHAKUMEA
GIZONA	GIZONA
EHAKUMEA	EHAKUMEA
GIZONA	GIZONA
EHAKUMEA	EHAKUMEA
GIZONA	GIZONA

Euskal Herriko V. Kale Erabileraren Neurketak administrazioaren laguntzarik ez zuela jasoko jakin genuenean, proiektu hau aurrera ateratzeko modua pentsatzeari ekin genion. Aurreko urteetako esperientzia oinarri hartuta, Euskal Herriko neurketa egitera gindoazela oinarri hartuta, udalei eta mankomunitateei euren herriko eta eskualdeko neurketa bereziak egiteko aukera eskaintzea, finantzazio iturri on bat izan litekeela pentsatu genuen. Honekin batera, hainbat udali neurketa orokorrerako dirulaguntzak emateko eskaera luzatu genion. Esan behar dugu eginiko eskaerak uste baino erantzun hobe jaso zuela eta aurreikuspen guztiak gainditu zituela. Honela, Euskal Herriko 20 herritan, 2 eskualdetan eta hiriburu batean egin ditugu neurketak. Dirulaguntza eskaerei dagokionez, 4 udaletatik jaso ditugu baieztoko erantzunak. Jarraian doakizue zerrenda zehatza

KALE ERABILERAREN NEURKETA EGIN DUTENAK

- | | | |
|-------------|------------------|---------------|
| > Bilbo | > Urnieta | > Zizurkil |
| > Anoeta | > Zestoa | > Usurbil |
| > Igorre | > Markina-Xemein | > Pasaia |
| > Villabona | > Gernika | > Zumaia |
| > Andoain | > Zaldibar | > Elgeta |
| > Lekeitio | > Legazpi | > Uribe-Kosta |
| > Zornotza | > Bermeo | > Sakana |
| > Leioa | > Astigarraga | > Ondarroa |

DIRULAGUNTZA EMAN DIGUTENAK

- | | |
|-------------|----------------------|
| > Arrasate | > Errenteria-Orereta |
| > Idiazabal | > Ordizia |

Soziolinguistika Klusterra sortu zenean eginiko gogoetan nabarmen ageri zen soziolinguistikaren inguruan lanean ibili bazebiltzala hainbat erakunde eta norbana-ko. Klusterraren baitan ikusten genituen egitekoen artean, hauek guztiak proiektu desberdinetan egituratzen joatea zen. Hauekin guztiekin soziolinguistika arloko sarea eratzen joatea, hain zuzen. Bide honetan ere zenbait urrats eman dira. Horren erakusle, 2006an zehar Klusterrarekin harreman mota bat edo beste izan dutenen zerrenda doakizue jarraian:

Izen deiturak	Erakundea	Harreman mota	Proiektua
1. Iñaki Martinez de Luna	Eusko Ikaskuntza	Proiektu taldeko kide Proiektu zuzendaria	- EHko hizkuntza erabileraren V. kale-neurketa - Bat Soziolinguistika Aldizkaria - ARRUE proiektua - The Case Of Basque' liburua
2. Maria Jose Azurmendi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Proiektu zuzendaria	- Bat Soziolinguistika Aldizkaria - The Case Of Basque' liburua
3. Sonia Perez	Euskara Elkartearen Topagunea	Proiektu taldeko kide	Gazteen hizkuntza erabileraren perspektiba eta prospektiba
4. Jaime Altuna	Gipuzkoako Urtxintxa Eskola	Proiektu taldeko kide Hizlaria	- Gazteen hizkuntza erabileraren perspektiba eta prospektiba - Gazteen hizkuntza jokaerak (Pasaia). Jardunaldia
5. Iñigo Fernandezek	Publis NCM	Hizlaria	Gazteen hizkuntza jokaerak (Pasaia). Jardunaldia
7. Rosa Ramos	Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea	Proiektu taldeko kide	EHko hizkuntza erabileraren V. kale-neurketa
8. Nekane Jausoro		Proiektu taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
10. J. Inazio Marko	EHU-UPV. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila	Zuzendaria Hizlaria	- Ulibarri programa. Kalitate lan taldea eta aholkularitza - ERALAN proiektua
11. Igor Calzadaren	MIKeko ikertzailea	Hizlaria	ERALAN proiektua
12. Aitor Aritzeta	UPV-EHU irakaslea	Hizlaria	ERALAN proiektua
13. Aitor Unanue	Lasarte-Oriako euskara teknikaria	Hizlaria	ERALAN proiektua
14. Gemma Sanginésen	Societat Valenciana de Psicologiako kidea	Hizlaria	ERALAN proiektua
15. Ferran Suayren	Societat Valenciana de Psicologiako kidea	Hizlaria	ERALAN proiektua
16. Eñaut Apaolaza	Emun Kooperatiba Elkartea	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
17. Amaia Zarrabeitia	Elhuyar Aholkularitza	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua

18. Jon Ajuria	Bizkaiko Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
19. Fermin Perez	Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
20. Nekane Jauregi	Bizkaiko Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
21. Joxean Amundarain	Bizkaiko Foru Aldundiko teknikaria	Proiektu taldeko kide Hizlaria	- ERALAN proiektua - Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
22. Aitziber Madrazo	LAB sindikatuko euskara planen arduraduna	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
23. Joxe Mari Ulazia	Fagor Arrasateko euskara planen arduraduna	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
24. Agurtzane Usandizaga	Eusko Ikaskuntza	Proiektu taldeko kide	ERALAN proiektua
25. Xabier Isasi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Zuzendaria Aholkularia Proiektu taldeko kide	- Lezoko eta Pasaiaiko haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna eta erabilera - ARRUE proiektua - EHko hizkuntza erabileraren V. kale-neurketa
26. Lore Erriondo	EHU-UPV. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
27. Alex Mungia	HABEko teknikaria	Proiektu taldeko kide	Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak
28. Xabier Elortza	HABEko teknikaria	Proiektu taldeko kide	Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak
29. Gema Loinaz	Kultura Saila. HPSko teknikaria	Proiektu taldeko kide	Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak
30. Iñaki Arruti	Lasarte-Oriako euskara teknikaria	Proiektu taldeko kide	Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak
31. Malores Etxeberria	Hernaniko euskara teknikaria	Proiektu taldeko kide	Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak
32. Kike Amonarritz		Aholkularia eta hizlaria Hizlaria	- Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak - Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
33. Jone Miren Hernandez	EHU-UPV. Antropologia Saila	Proiektu taldeko kide Hizlaria	- Bat Soziolinguistika Aldizkaria - Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
34. Inma Muñoa	Gipuzkoako Ikastolen Elkartea	Proiektu taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
35. Battittu Coyos	René Descartes Unibertsitatea	Proiektu taldeko kide	Bat Soziolinguistika Aldizkaria
36. Nekane Larrañaga	EHU-UPV. Soziologia I. Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
37. Kontsesi Berriotxo	EHU-UPV. Soziologia I. Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
38. Juanito Etxeberria	EHU-UPV. Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua

39. Iñigo Bullaín	EHU-UPV. Konstituzio Zuzenbidea eta Politika Pentsamenduaren eta Gizarte Mugimenduen Historia Saila	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
40. Manu Ertzilla	Mikelats euskaltegia	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
41. Iñaki Garcia	Mondragon Unibertsitatea	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
42. Gatxi Arexolaleiba	Emun Kooperatiba Elkartea	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
43. Pello Jauregi	Kuadrillategiko koordinatzailea	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
44. Erramun Osa	EHko Ikastolen Konfederazioko Hizkuntza arduraduna	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
45. Zigor Etxeburua	Kontseilua	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
46. Christophe Betbeder	Euskararen Erakunde Publikoa (1.a zuzendaria)	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
47. Begoña Antxustegi	HPS, Koordinazio Zuzendaritzako Plangintza eta Azterlanetako teknikaria	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
48. Iñaki Artola	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu taldeko kide	- Ulibarri programa. Kalitate lan taldea eta aholkularitza - ARRUE proiektua
49. Santos Izagirre	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu taldeko kide	- Ulibarri programa. Kalitate lan taldea eta aholkularitza - ARRUE proiektua
50. Jokin Larrañaga	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu taldeko kide	- Ulibarri programa. Kalitate lan taldea eta aholkularitza - ARRUE proiektua
51. Jasone Aldekoa	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Hizkuntza Normalkuntza Teknikaria	Proiektu taldeko kide	Ulibarri programa. Kalitate lan taldea eta aholkularitza
52. Josune Alberdi	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Hizkuntza Normalkuntza Teknikaria	Proiektu taldeko kide	Ulibarri programa. Kalitate lan taldea eta aholkularitza
53 Xabier Bengoetxea	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Hizkuntza Normalkuntza Teknikaria	Proiektu taldeko kide	Ulibarri programa. Kalitate lan taldea eta aholkularitza
54. Mikel Zalbide	Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua, Nolega	Proiektu taldeko kide	ARRUE proiektua
55. Karmele Perez	Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI	Proiektu zuzendaria	Normalizazio Esperientzia Aurreratuen Kasuak

Hemen jasotako zerrenda zabaltzen joatea, bildutako erreferentzien datuak osatzea eta bertan aipatutakoekin harremanetan jartzeko bideak lantzea, soziolinguistika arloko sarea eratzekeko urrats garrantzitsuak direla pentsatzen dugu. Horregatik, 2007an, bildu izan ditugun erreferentzia guztiak gure webgunean jartzeko asmoa dugu.

10




Soziolinguistika Klusterrean, argi dugu ezin dugula urtez-urteko aurreikuspen hutsekin jokatu; benetan gure misio eta bisioa landu asmo baditugu, epe ertain-luzeko ikuspegiz jokatzeari ezinbestekoa dela. Horregatik, aurtengoan, ondorengo hiru urteetako asmo, irizpide eta helburuei buruz hitz egin dugu gure bazkideekin. Udazkenean, Hausnarketa Estrategikoa antolatu genuen eta gure misio, bisio eta balioak gainbegiratzeari gain, 2007-2009 epealdirako gure helburu orokorrak eta adierazleak finkatu genituen. Hausnarketa hauetan, 17 bazkide erakundeetatik, modu batean edo bestean 12k euren ekarpena egin zuten. Haue-taz, gain, 4 bazkide norbanakoren iruzkinak ere jaso genituen.

Orokorrean, esan dezakegu, hausnarketako ondorio nagusia orain arteko ibilbideari, oinarritzko aldatketarik egin gabe, jarraipena ematea izan zela. Bide hori zernola egin eta gure misio eta bisioa lortze bidean ezarri beharreko helburu orokorrak zehaztea izan zen hausnarketatik atera genuen emaitza nagusia. Hemen duzue osatu genuen mapa estrategikoa:

V
V
V
V
V
V
V

MAPA ESTRATEGIKOA 07-09



helburuak eta
balantzeara

11

Ondorengo taulan jaso ditugu esparruz esparru 2006rako jarri genituen helburuak:

Baliabideak	• Urteko balantze ekonomikoan defizitik ez izatea • Langileen asebetetzea neurtzeko sistema diseinatu eta aplikatzen hastea • Zuzendaritzaren efizientziari buruzko auto-balorazioa eta langileen balorazioa 6tik gorakoa izatea • Langileen trebakuntzan, bakoitzak gutxienez 40 ordu egin izana lanordutan • Lan giroari dagozkion bulego kideon asebetze-indizeak 6tik gorakoak izatea • Kalitateari buruzko oinarritzko formazioa (5S-en ingurukoa) jaso izana
Prozesuak	• Bulegoan eta zuzendaritzan proiektuen prozedurari buruzko errebisioa • Kalitateari buruzko oinarritzko formazioaren edukiak aplikatzeko proposamena • Proiektu guztietan ebaluazio sistema aplikatu izana • Adierazle orokorren errebisioa kopurua (urtarrila, maiatza eta urrian)
Garapena	• Proiektu bakoitzetik gutxienez bigarren produktu bat sortu izana beste garapen-arlo batean • Garatutako proiektuen lorpen-indizeak 6tik gorakoak izatea • Garapen-arlo bakoitzean gutxienez aurreko urtean beste proiektu burutu izana
Erabiltzaile / Komunitatea	• Garatutako proiektuen ondorioz, pertsona juridiko diren bazkideek jasotako etekin identifikagarri bat gutxienez izatea • Proiektuetako Erreferentzien Bilgunea sortu izana • Pertsona juridiko diren bazkideen asebetetze-indizeak 6tik gorakoak izatea, 10eko eskalan • Pertsona juridiko diren bazkide guztiek gutxienez proiektu batean parte hartu izana • Bazkideen proposamenez eta kanpo eskaeren bidez garatutako proiektuen arteko proportzioa 3/2 izatea edo handiagoa izatea • Bazkide kopurua %20an haztea • Gizartean zabaldutako ezagutza-eraketak identifikatuta izatea

Jarritako helburuen inguruko balantzeak berriz, ondorengo grafikotan islatu ditugu:


Adierazleen balantzea

Ikus daitekeenez, iaztik aurtengorako gure adierazle sistema dezentee osatuagoa dugu. Iazko 9 adierazleen aldean, aurtengoa 3 besterik ez dira osatu gabe edo daturik gabe ditugunak. Gainera, adierazleetan jasotako emaitzak orok har onak izan direla ikusi dugu.

Kezka berezia sortzen digun adierazle bat egon badagoen arren. Bazkideek jasotako etekin identifikagarri dagokiena, hain zuzen. Bertan ageri den %19ko betetze maila, gehienbat, honen inguruan bazkideei eginiko galdetegiaren erantzun gutxi jaso ditugulako izan da.

Baina, hori bera, bazkideen nahi eta beharrei erantzun asmo dien gurea bezalako erakunde batentzat, ez da batere emaitza ona. Hortaz, datorren urteko egitasmoan, bazkideekiko gure harremana estutzea-ri begira, neurri zehatzak hartu asmo ditugu.


Erabiltzaileak eta komunitatea



Daturik ez duten adierazleak

Gizartearen zabalduetako ezagutza-emaitzak identifikatuta izatea


Baliabideak (pertsonal eta finantzak)



Daturik ez duten adierazleak

Zuzendaritzaren efizientziari buruzko autobalorazioa eta langileen balorazioa


Garapena



Daturik ez duten adierazleak

Garatutako proiektuen balorazio eta lortpen-indizeak

(Barne) prozesuak



Daturik ez duten adierazleak